



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2007-11-28**

V.URTEA 1.299.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Udal ordezkariak, txapelketaren sustatzaileak eta jokalaria atzo, aurkezpenean. I.TERRADILLOS

BETERANOEN ARTEKO TXAPELKETAKO PARTIDAK TOLOSAN JOKATUKO DITU REALAK

KIROLAK Ligako txapeldun izan diren 9 taldeen arteko txapelketa izango da; Realaren etxeko partidak Usabal kiroldegian izango dira 3

Erremonteko Faustino Torneoan Altuna anaiak eta Patxi Zeberio txapelaren bila

TOLOSALDEA Atzo aurkeztu zuten txapelketa Galarretan; guztira sei bikote ariko dira eta irabazlea urtarrilaren 12an erabakiko da finalean 6

Haurrentzat jolas egokia nola aukeratu azalduko dute

TOLOSALDEA Txatxilipurdiko Barberenak gaur Zizurkilen eta bihar Alegian hitzaldia emango du 5



E. EZBIZA

JOSE RAMON MAUDUIT HAURREN MASAJE IRAKASLEA

«Komunikazioan kalte handia eragiten du estresak haurrengan»

TOLOSA Hiru astez haurrei zuzendutako masaje ikastaroa antolatu dute Hirukiden 2

«AHTk bizi eta lan baldintzak okertuko» dituela dio LAB sindikatuak

ANOETA «Langilegoaren aurkako proiektua» dela azaldu dute 4

Txuleta-aren Festaren I. Desafioa antolatu dute Beotibarren

TOLOSA Abenduaren 8an, Titin III. eta Goñi II.a Olaizola II.a eta Beginoren aurka 3

Gizartea » Hiru astelehenetan, haurrei zuzendutako masaje ikastaroa izan da gurasoentzat, Hirukiden

«Estresak izugarritzako kaltea eragiten du haurren; batez ere, komunikazioan»

JOSE RAMON MAUDUIT » Haurren masaje irakaslea

ESTI ZEIZA

Jose Ramon Mauduitek haurrei zuzendutako masaje ikastaroak eskaini dizkie gurasoei. Denera, hiru jardunaldi izan dira, eta hauek adin ezberdinetako haurrentzako ziren.

Zer da zure ikastaroetan egiten duzuen?

Ikastaroaren aurretik, guraso guztiak hitz egin nuen, elkarrizketak egin nituen. Ondoren, zertan dartzan eta zer onura ekartzen dituen haurren masajeak azaldu nien.

Zertarako balio du masajeak?


Haurren eta gurasoen arteko harremana zailtzen duen faktore eta egoera ugari daude, esaterako, bularrarekin arazoak izatea, lanean hasi beharra... Masajea zubi bat dela esan genezake, eta gertutasun horri eusten laguntzen du. Zerbait zapuztu bada, gertuarazten.

Kasu edo arazo bakoitzaren araberako, masajeak ezberdina izan behar al du?

Bai, desberdina izan da. Haur bakoitzak bizi izan duen egoeraren araberako, beti hasieratik, komenigarria izaten da ezagutzea gorputza, eta erreakzioak zerk eragiten dizkion ikustea. Horrela masajea eraginkorragoa izango da.

Zeintzuk dira, oro har guraso eta haurren arteko harreman horien arazoak?

Gurasoei zaila egiten zaie gauza horiek komentatzea. Horretarako, gauza horiek ikusten jakin egin behar baita. Batzuetan begiak irekierazi behar dira. Bestela, batzuek txiki-txiki dituzte arazoak.



ESTI ZEIZA

Erditzeko uanean, epiduralarengatik edo ama asko, une horretan logo edo geldoago egoten dira, eta esnatze hori ere oso garrantzitsua da. Haurrak bere barnean mar-txan jartzeko dituzten gaiak lanean hasteko garaia baita. Horregatik, komenigarria da, ez egotea tentsiorik, eta min ematen dion atalik

ez izatea, horrek ez baito utziko behar den bezala gauzak adierazten.

Zure saioak, adinaren arabera, masaje ezberdinak eman behar al zaizkie haurrei?

Txikienekin, masaje oso konkretua egiten da, lepoaren inguruan, buruan... Lehendabiziko zatietan,



Hirukiden eskaintako masaje ikastaroa uneetako bat. ESTI ZEIZA

hor egiten baita lan gehien, burmuinean. Horregatik, hau zenbat eta askeago egon, hobeto garatuko da. Bigarren saioekin, hau da, urtebete inguru duten haurrekin, masaje osoago bat ematen saiatzen naiz, guztia landuz. Hortik aurreko berriz lagundu behar zaie bere gorputzaren kokapenari, eserleku on bat ematen lagundu. Horretarako, zutik jartzen denarako, artikulazioek beraien bizipen sententzioa izan behar dute. gorputza ahal bezain tinkoen egon dadin.

Oro har, lortutako emaitzarekin gustura geratzen al dira gurasoak?

Bai, ikusten da. Hala ere, gertatzen dena da, guraso asko nahiko estu

bizi direla. Horregatik, egunero, haurrekin patsadaz jolasteko eta masajeak emateko denborarik ez dute hartzen. Beraz, askotan, umearentzat ona dela eta garrantzia zergatik duen azaltzen aritzen baren naiz, guztia landuz. Hortik aurreko berriz lagundu behar zaie, dagoen estresaren ondorioz, ez da posible izaten aurrera eramatea.

Gaur egungo estresak, eragina al du haurren, horren txikiak izanda ere?

Bai, asko nabaritzen dute. Estresak izugarritzako kaltea egiten die haurrei. Kalte handiena komunikazioan egiten du. Askotan, haurrek bizitzen dutenaz guraso asko ez dira konturatzen. Gurasoak erritmo batean sartuta daude eta ez dute denborarik ohartzeko.

Z Zurea da hitza info

Eliteko txirriindularientzat, 5,5 milioi, eta gainontzekoentzat zer?

Kirola » Herenegun inauguratu zuten Txirrintularitzan Espezializatutako Kirol Teknikazio Zentroa

LOURDES AZPLIKUETA

Egunari guztietako albiste izan zen astearte, inauguratu berri duten Txirriindularitzako Teknikazio zentroa. Luxuzko instalakuntzak, etorkizuneko txirriindulariak prestatzeko. Hau oso ondo dago, gainera, puntako txirriindulariak izateak, ospea ematen dio herriari.

Badakit, horrelako gauzak bul-

tzatu beharra daudela, eta onurak ekarriko dituela. Baina zentroaren kostua zein izan den ikusita, harri eta zur geratu naiz. 5,5 milioi euro (pezetatan milioak eta milioak) erabili dituzte proiektu hau aurrera eramateko.

Nire buruari galdetzen diot, zer egingo ote nuke nik horrenbeste dirurekin. Hala ere, kontuek ez dinate ematen, argazkietan eta kiroldegi barrutik ikusitakoaren arabera, ez da beste munduko ezer. Ez dakit zertarako behar izan duten horrenbeste diru. Hala ere, dena ez du Udalak (guk) ordaindu. Zati bat, Espainiar estatutik etorri da, eta beste pixka bat Gipuzkoako Foru Aldunditik. Baina ba al daki-

ze zenbat diru jarri duen Tolosako Udalak? (hau da, zati handi batean, zenbat diru jarri dute tolosarrek) 3,5 milioi euro, hain zuzen.

Tolosar gutxik erabiliko duten instalakuntza batzuetan 3,5 milioi euro gastatu ditu Udalak. Ez al zen hobe diru hori, kiroldegian bertan makina gehiago jartzeko erabil-tzea? Behin eta berriz esaten ari dira, aurreikusitako bazkideen kopurua gainditu dela eta itxaron egin behar dela bazkide berriak egiteko. Horregatik, nik uste ego-kiagoa izango zela, herritar guz-tien eskura dauden instalakuntzak hobetzea. Eta ez eliteko txirriindu-lariei zuzendutako zentro bat egi-tea.

'Torre sin nombre' ikusgai, bihar, Oargin

Kirola » Egoitz Goikoetxea izan da Oargi elkarteak antolatutako mendi hamabostaldiko argazki lehiaketako irabazlea

ESTI ZEIZA

Oargi elkarteak antolatutako mendi hamabostaldiaren baitan, bideo emanaldia izango da bihar. Alpi Mambo espedizioan hartutako irudiekin osatutako *Torre sin nombre* eskalada dokumentala izango da ikusgai. Ekitaldia 19:30ean hasi-ko da, eta Oargi elkartearen bertan izango da.

Ekitaldiekin jarraituz, etzi, 19:00etan, Axier Izagirrearen esku-tik, *Urtebete Himalayan* dokumental-saioa izango da ikusgai Oargi elkartearen. Ondoren, Izagi-

rri omenaldia egingo diote eta afaria izango da elkartearen bertan. Izen emateko 637 83 03 80 telefono zenbakira dei.

Azkenik, larunbatean, hau da, abenduaren lehen, II. Boulder Txapelketa jokatuko da Oargi elkarte-an, 16:00etatik aurrera. Parte hartu nahi duenak, txapelketa hasi baino ordu bate lehenago eman beharko du izena elkartearen bertan, edo 637 83 03 80 telefono zenbakian.

Argazki lehiaketa

Oargi elkarteak antolatutako mendi argazki lehiaketak baditu irabazleak. Lehenengo saria, argazki kamara digitala, Egoitz Goikoe-txearentzat izan da. Bigarren pos-tuan Jose Antonio Abaigar geratu da. Hirugarren berriz, Jon Pagola geratu da, eta laugarren, Patxi San Sebastian.

Indoor Futbol Ligako I. Lehiaketako partidak Tolosan jokatuko ditu Realak

Futbola » Ligako txapelaldun izan diren taldeen arteko txapelketa da; Usabalen izango dira Realak etxean jokatu dituen partidak

INIGO TERRADILLOS

Txirindularitzan Espezializatu-tako Teknikazio Zentroa inauguratu zuten herenegun usabal kiroldegian, eta atzokoan kirolari dago-kionez, beste urrats bat eman zuten Tolosan; izan ere, hurrengo urterako antolatu duten Indoor Futbol Ligako I. Lehiaketako partidak Realak Tolosan jokatuko ditu. Beraz, «kulturan, gastronomian edota turismoan ezezik kirolean ere erreferente izango da Tolosa aurrerantz», azaldu zuen atzo, lehiaketa berri honen aurkezpenen Oscar Renedok Tolosako Udaleko kirol zinegotziak.

Txapelaldun arteko lehia

Futbol jokalariek beterranoen txapelketa da, hain zuzen ere antolatu dutena, lehen mailako taldeetan jokatu zuten futbolariena, Futbol Liga Profesionaleko txapelaldun izan zirena. Txapelketa 2008ko urtariletik maiatzera bitarte izan-



Udal ordezkariak, txapelketaren sustatzaileak eta jokariak atzo, aurkezpenen. I. TERRADILLOS

go da, eta ezaugarri hauekin mundu osoan antolatzen den lehendabizikoa da.

Liga profesionaleko txapelaldun izan diren eta lehiaketa honetan parte hartzen duten taldeak hauek dira: Real Madrid, Bartzelona, Atletico Madrid, Athletic, Valencia, Sevilla, Deportivo eta Betis. Talde bakoitzak zortzi partida jokatuko ditu; haietako lau etxean eta beste lau kanpoan. Realaren kasuan, etxean jokatu dituen

partidak Tolosako Usabal kiroldegian jokatuko ditu. Atletico Madrilen aurka otsailaren 1ean jokatu du, Real Madrilen aurka otsailaren 22an, Deportiboren aurkako martxoaren 28an izango da, eta Betis aurkako maiatzaren 9an. Partida guztiak 20:00etan izango dira.

Realeko taldea ondorengo jokalariek beterranoek osatuko dute: Gorri, Bakero, Miguel Fuentes, Luis Perez, Gajate, Periko Alonso, Jo-

kin Uria, Kodro, Iturrino eta Loïnaz. Hauen entrenatzailea, berriz, Luis Arconada izango da.

Izarrez beteriko txapelketa

Realaren taldean ariko diren jokalariek aski ezagunez gain, txapelketan izar ugari hartuko dute parte: Real Madrid taldeko Emilio Butragueño, Schuster, Fernando Redondo; Bartzelonako Guardiola, Luis Enrique eta Goikoetxea; Atletico de Madriletik Kiko eta Pantic;

» ZENBAIT DATU

■ **Reala.** Gorri, Bakero, Miguel Fuentes, Luis Perez, Gajate, Periko Alonso, Jokin Uria, Kodro, Iturrino eta Loïnaz jokalariek ohiek osatuko dute Realaren taldea. Luis Arconada izango dute entrenatzaile.

Egutegia

■ **Otsailak 1.** Atletico Madrilen aurka jokatu du Realak.
■ **Otsailak 22.** Realak Real Madrilen aurka jokatu du.
■ **Martxoak 28.** Deportiboren aurkako partida izango du Realak.
■ **Maiatzak 9.** Betisen aurka jokatu du Realak.

Athletic taldeko Julen Guerrero eta Patxi Salinas; Valenciako Pellegrino; Sevillako Pintinho eta Prieto; Deportivo Donato eta Fran eta Betis taldean aritu zen Gordillo izango dira, besteak beste futboleko jokatzeko ikusi ahaliko diren jokariak.

Herriari kirola sustatzea

Tolosako Udalak, Futbol Indoor Events taldeak eta Usabalgoko kiroldegiko Bide-Bide taberna-kafetegia esleipendunak sinatutako akordioaren helburua «udalerrian kirol jarduna sustatzea eta kirola praktikatuaztea da». Horrez gain, Haurrentzako Indoor Futbol Torneo ere egingo dute, udalerriko futbol taldeek eta ikastetxeek hartuko dutelarik parte.

Txuleta Festaren I. Desafioa abenduaren 8an

Pilota » Txuleta Festaren I. Desafioa izango da Beotibarren, Olaizola II.a eta Begino Titin III eta Goñi II.aren aurka

I. TERRADILLOS

Beterranoen arteko txapelketan hartuko du parte Realak, beste zortzi parte-hartzaileek bezala, Liga Profesionaleko txapelaldun izandakoa baita, eta gainera, etxean jokatu dituen partidak, Tolosan, Usabal kiroldegian izango dira. Ez da, ordea, hori izango goi mailako kirola eta Tolosa lotuko dituen ekitaldi bakarra izango, izan ere, atzo bertan pilotarekin zerikusia duen hitzarmen baten berri eman zuten, Txuleta Festaren I. Desafioa, hain zuzen ere, Asegarce eta Aspe enpresetako eliteko pilotarien artean.

Goi mailako pilota ikuskizuna

II. Txuleta Festaren baitan antolatu dute, abenduaren 8an, 16:30etik aurrera, Beotibar pilotalekuan, pilotatik ikuskizuna. Eta nolaez, Txuleta Festaren lehenengo Desafioa irabazten duen bikoteak txuleta zinta bat irabaziko du. Ez dira ez

nolanahiko pilotariak izango desafio honetan ariko direnak. Olaizola II.a eta Begino Titin III.ak eta Goñi II.ak osaturikoa izango dira aurrez aurre ariko direnak.

Partida hau eta gero, Larralde eta Urberoagak Belloso eta Oteizaren aurka jokatu dute. Eta desafio partidaren aurretik, berriz, lau terdiko 2. mailako finala jokatu dute Diazek eta Argotek. Beraz, pilota ikuskizun paregabea da datorren larunbatean, abenduaren 8an ikusteko aukera izango dena.

Ramon Arbillagari omenaldia

Partida hori amaitzen denean eta desafio hasi aurretik omenaldia egingo diote Ramon Arbillaga Tolosako Asuncion klinikako kudeatzaile zenari. Ramon Arbillaga aurtengo uztailean hil zen, mendi istripuan, Huescako Pirinioetan. Omenaldian Euskal Herriari eta kirolari zion maitasunarekin loturiko sorpresa bat prestatu dute.

Hiru urtetako hitzarmena

Tolosako Txuleta Festako I. Desafioa Asegarce eta Aspe pilota enpresek datozen hiru urterako sinatutako hitzarmenaren lehenbi-



Asegarce eta Aspe enpresen artean hitzarmena sinatu zuen atzo Tolosako Udalak. I. TERRADILLOS

ziko emaitza izango da. Izan ere, «herriari dagoen pilota zaletasunari eusteko eta jardun hori areagotzeko asmoarekin», eliteko pilotarien arteko bost jaialdi antolatuko dira Tolosan urtean zehar.

Tolosako Beotibar pilotalekua, frontoi tradizionala dela esan be-

har, eta gainera, «oso gustukoa» da pilotarien artean. 1.200 lagun hartzeko lekua eskaintzen du, eliteko pilotarien jokoaz gozatzeko modua eginez ikusleei. Gainera, kirol hau gazteen artean zabaldu eta indartzeko, gazteek doan sartu ahal izango dute partidak ikustera.

» PILOTA DESAFIOA

■ **Pilotariak.** Olaizola II.a eta Begino Titin III.a eta Goñi II.aren aurka jokatu dute
■ **Eguna.** Abenduaren 8an, 16:30etan hasiko da jaialdia.
■ **Pilotalekua.** Beotibar.

LAB: «AHTk okertu egingo ditu herritarren bizi eta lan baldintzak»

Anoeta » LABeko Anoetako zenbait kidek AHT «langile klasearen aurko proiektua» dela azaldu dute

ERREDAKZIOA

Datorren igandean, abenduaren 2an, Anoetan AHT proiektuaren inguruko herri galdeketa egingo dela eta, herriko LABeko langile eta Orbinok, Calcosa eta Tarteko LABeko delegatuek prentsurrekoan egin dute, «AHTari ez esateko arrazoi asko» dituztela azalduz. AHT gehiengoaren interesen aldekoa ez dela azaldu zuten: «Ingurumena suntsituko duen proiektua izateaz gain langilearen, ikasleen, nekazari txikien, dendari txikien...hau da, herritar xehearen gehiengo zabalaren bizia eta lan baldintzek txarrera egitea ekarriko du».

AHTren «proiektu txikitzaile» aurrera badoa hurrengo urteetan «guztira Euskal Herrian 10.000 milioi euro baino gehiago xurgatuko ditu, gastu sozialak murriztuz (hezkuntza, osasuna, langabezi subsidiokoak, inbertsio publikoak...) eta desberdintasun sozialak sa-



LABeko kideak prentsurrekoaren une batean. HITZA

konduz», zehaztu dute. AHT bultzatzen duten Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak zein Espainiako eta Frantziako Gobernuak prekarizatearen, pobrezia-aren, etxebizitzaren, osasungitza-aren, hezkuntza-aren, kulturaren... arazoak konpondu beharrean, handitu egingo direla diote proiektu horrekin. «AHT ez da gehiengoaren onerako, enpresa konstruktora, multinazional eta banku handien interes ekonomikoak defendatzeko baiziki», zehaztu zuten LABeko kideek.

AHTk Euskal Herriko garraio arazoak eta «langileok lanera joa-

teko ditugun oztopoak (stripuak, gasolina gastuak...), besteak beste errepideetan dagoen kolapsoa, ez ditu konponduko», diote, ez baititu murriztuko «modu esanguratsuan» autoak eta kamioiak errepideetatik. Proiektu hori langileen eta herritarren gehiengoaren garraio arazoak konponduko lituzkeen kalitatezko garraio publikoa bultzatzeko ez delagaineratu dute.

Kapitelisten interesak

AHTa erabat lotuta dago «kapitelisten interes ekonomikoekin», LABeko kideek iritziz, «eta langileok lanaren inguruan ditugun

arazoekin: langabezia, lan istripuak, behin-behinekotasuna, subkontratazioak, pribatizazioak eta deslokalizazioak areagotzea bultzatuko du». AHTren egitasmoa, «Michelineko lanpostuen suntsiketaren mehatxua bezala, eraso bat da langileon aurka». Proiektua «gure onerako dela esango digute AHTren defendatzaileek, dena egiten dute gure onerako diotenez». Errealitateak politika kapitalistaren ondorioak agerian uzten dituela esan dute, «kapitalisten negozioak gero eta biribilagoak diren bitartean langileon baldintzak gero eta okerragoak dira: lanpostuen suntsiketa, lan erritmoen eta lan orduen gorakada, lanaren prekarizazioa, soldata murrizketak...».

AHTa langile klasearen aurka proiektua dela zehaztu dute eta proiektuaren aurka langilearen parte hartzeak duen «garrantzi handia» azpimarratu nahi izan dute. Larunbatean, abenduaren 1ean, 17:00etan Anoetan egingo den eskualdeko manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dute. Bestalde, igandean egingo den herri galdeketa, «denok bat egingo da», AHTri ez esatea eskatzen dute.

24 lagun parte hartzen ari dira dagoeneko 'Mintzalaguna' egitasmoan

Villabona-Zizurkil » Bi herrietako Euskara Zerbitzuek «arrakastatsutzat» jo dute egitasmoak izan duen harrera

ERREDAKZIOA

Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuek «arrakastatsutzat» jo dute udalerririk horietan lehen aldiz martxan jarri den *Mintzalaguna* egitasmoa. Izan ere, «ez da gutxiestekeoa ekimenak bildu duen lagun kopurua: 24 guztira, 8 taldeetan banatuta; alegia, 16 euskarikasle eta 8 laguntzaile euskaldun», azaldu dute.

Bi herrietako Euskara Zerbitzuek «oso pozik» daude egitasmoak herritarren artean izan duen erantzunarekin. Taldeek abiatzeko 8 laguntzaile euskaldun behar ziren, eta 12 lagun azaldu dira horretarako prest. Beraz, haietako batzuk erreserban geratuko dira, Mintzalagun talde berriak sor daitzekelako edo.

Helburua da euskara-ikasle hauei gaur egun denak euskaltegian ari ez diren arren kalean euskaraz hitz egiten laguntzea, eta horretan ahaleginduko dira gure artean izango diren zortzi Mintzalagun-hirukote horiek.

Baserritarrak kexu AHTrekin

ERREDAKZIOA

AHT proiektuak nekazaritzan eragina izango du. Anoetako Etxeberri baserriko Begoña Urkizu eta Sarobe baserriko Gregorio Zuaznabar kexu dira ez dagoelako informaziorik proiektuaren inguruan eta biek abenduaren 2an herrian egingo den herri galdeketa bultzatzen dute.

Urkizuk dioenez, «hemen ez di-

gute ezer galdetzen eta galdetu gabe inposatzen dizkigute proiektu gehienak. AHTk Anoeta txikituko digu eta beharrezkoa da herritarrei horren inguruan duten iritzia galdetzea». Zuaznabarrek gaineratzen duenez, «proiektu honen inguruan ez da informatu eta eztabaidatu. AHTk eragingo dituen kalteak kontuan hartuta, beharrezkoa da proiektu horren in-

guruan informatu, eztabaidatu eta herriari galdetzea. Herritarrek bultzatutako ariketa demokratikoa da abenduaren 2ko herri galdeketa eta horrelakoak gehiagotan egin beharko lirakekeela uste dute».

Kalteak

Beraien lurretan AHTk sor ditzakeen kalteen inguruan, Urkizuk dio AHTk zuzenean ez duela bere terrenorik ukitutako, «baina ez dakit nekazaritzarako lur guztiak okupatzen baldin badizkigute nondik gara».

Zuaznabarrek azaltzen duenez, «oraindik ez dago oso argi eta ikus-teko dago zein kalte eragingo dituen, informazio zehatzik ez baitigute eman. Ez dakigu zein ondorio ekarriko dizkigun». Zuaznabarrek ez daki lurjabe moduan zuzenean kaltetzen dion, «baina hala eta guztiz ere lehenengo sektorea zuzenean kaltetuko duen proiektua izango da». Azken urteetan lur asko okupatzen ari direla dio azpiegitura ezberdinekin eta horrek «nekazaritzarako lurren murriztea dakar, lurren murrizpen horrek dakartzan ondorio latzekin».

Astebururako hainbat ekitaldi antolatu dituzte herri galdeketa dela-eta

ERREDAKZIOA

Astebururako hainbat ekitaldi antolatu dira herri galdeketa inguruan. Bitartean, astean zehar AHT Gelditu! Elkarlanako kideak herri galdeketa AHTri ez ezeko emateko eskatuz etxetz ibiliko dira.

Asteburuarri dagokionez, larunbatean, 17:00etan Anoetako herriko plazatik manifestazioa abiatuko da Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta. Ondoren, ekitaldia egingo dute plazan. 19:00etan erromeria izango da. Musikari lagunduz, talogileak eta taberna egongo dira jan-edana eskaintzeko.

Igandean, 09:00etatik 20:00etara herri galdeketa egingo dute. 10:00etan txistulariak; 10:30ean pilota partidak herriko frontoian; 11:30ean sagardo dastaketa eta ondoren kantu kalejira; 14:00etan bazkari herrikoia Kuku elkartearen (izen-ematea Itzuli eta Arkupe tabernetan) eta gero Ainhua Ansa bakarlariarekin kantaldia; 17:00etan dantzariak herriko plazan eta bukatzeko, 20:00etan bozka-kon-taketa.

Txuri-Urdinera irteera antolatu dute 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat

Aiztondo » Larunbat honetan egingo dute irteera; bailarako udalek diruz lagunduko dute egitasmoa

ERREDAKZIOA

Aiztondo bailarako 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta ekitaldi ezberdinak antolatzeko asmoa dute. Lehenengo, Txuri-Urdinera bisita egitea izango da. Larunbatean, abenduaren 1ean izango da hori, eta bailarako udalek lagunduko dute kostua ordaintzen.


Zizurkilgo Joxe Arregi plazan elkartzeko dira larunbatean 10:00etan. Gazte bakoitzak 7 euro ordaindu beharko ditu eta bazkaria ere eman behar dute. Eskularruak hartzeko ere aholkatu dute. Bazkalduta, beraz, Donostian bertan egingo dute eta 16:30eko tren hartuko dute. Izena Zizurkilgo liburutegian eman daiteke. Horretarako azken eguna bihar izango da.

GIPONITUA

Abenduak 1, larunbata
ORDIZIA, Majori Koroledgia
18:00

Aitor Sarriegi Unai Muñoa
Aitor Mendiluze Jose Munduate
Iñaki Zelaia Iñaki Gurrutxaga

www.giponitua.com hitza



Gaur egungo jostailuen artean aisialdi bertuala osatzen dutenak dira nagusi, baina betikoek leku garrantzitsua dute. M.S.

Gaur Zizurkilen eta bihar Alegian izango da jolas egokia nola aukeratzeari buruzko hitzaldia. Eneko Barberenak bideratuko ditu biak eta guraso eta hezitzaileentzat da aproposa, Gabonetatik hurbil gauden garaian.

Jostailua baino, jolasa

NEREA URBIZU

Ez omen da jostailu ideala existitzen. Bai, ordea, ume bakoitzari okerrago edo hobeago dagokion jostailua. Hala ere, inportantea ez da jostailua, jolastea baizik. Bada jolasik gabeko jostailurik, baina ez ordea, jostailurik gabeko jolasik. Horregatik, Eneko Barberena Txatxilipurdi elkarteak kideak gaur Zizurkilen (15:00etan Pedro Mari Otaño eskolan) eta bihar Alegian (19:00etan Kultur Etxean) hitzaldi bat eman behar du hezitzaile eta gurasoentzat.

Eguberriak datozkigu gainera, poltxikoak husteko nolabaiteko beharra sentitzeko garaia (eta ez gizartearen inposaketa bakarrik, uste den bezala). Haurrek etxean beste opari askoren artean jostailuak jasotzen dituzte, baina «ez beti erabilera egokikoak», Eneko Barberena Txatxilipurdi elkarte-kidearen ustetan.

Helburua, erosleentzat aholkuak eta irizpideak ematea Hitzaldia gurasoei eta hezitzaileei zuzendua dago, ordu bete ingurukoa. Eneko Barberenak esan bezala, «Gabonen aurrean seme-alabentzat jostailuak aukeratzeko hasten garenean irizpide eta gogoeta batzuk plazaratu nahi dizkiegu. Azken batean, hausnarketa bat egin dezatela».

Ez jostailu onik, ez txarrik

Jostailu onik ez dago, ezta txarrik ere. Batzuk aproposagoak eta hain aproposak ez direnak daude. «Erabilera dago gakoa. Gu ez gara orojakileak eta ez dugu egia absolutorik, baina umeen ezaugarriak, etxeko egoera, zein etxetan bizi den, anaia-arrebak dituen gurasoek haurrarekin jolasteko ohitura duten ala ez, zer den haurra-

rengan bultzatu nahi duguna... Azken batean, gurasoak dira haurra hobekien ezagutzen dutenak».

Aurki Gabonak hasiko dira, eta orduan haurrek urtean jasotzen dituzten jostailuen %80a jasoko dute. Txatxilipurdi elkarte urtean zehar banatzeakoaren aldekoa da. «Oreka bat behar da, urtean zehar. Kolpez pila bat eta urtean zehar ez ez ez da ona».

Jostailuen artean orain aisialdi bertualekoak dira, indarra hartzen ari dira: ordenagailu jolasak, teletestaren aurrekoak, mugikorretakoak... «Hauetaz ezin zaie bizkarra eman. Aurre egin behar zaie, edo gutxienez ezagutu. Gu euskara elkarre bat garen heinean, apur bat

Txatxilipurdi elkarteok sormena bultzatzen dute, birziklatzearen aldekoak dira

euskarazko ekoizpena bultzatu eta zabaldu behar dugu».

Oraindik ere jostailu sexistak badaude. «Jostailu aproposak ez dagoela diogunean bi ñabardura egiten ditugu: jostailu sexistak, hau da; rola banatzen dituenak. Azken batean, jostailuak ez dauka sexurik. Mutilarentzat ona dena nes-

karentzat ere da, eta aldierantziz». Bestetik, jostailu belikoak: «Hauek oso erakargarriak dira jolasten dutentzat baina bertuala dena eta erreala dena bereizten irakatsi behar zaio».


Taldean jolasteko jokuak badira, baina lehiakortasuna bultzatzen dutenekin kontua ere izan behar da. «Halere, uste dugu lehiakortasuna zentzu onean, eta ez zapaltzailean, bultzatu behar dela».

Gurasoen kezka argitzea

Gurasoen kezka nagusiak mundu bertualarekin daude lotuta, «azken batean, ez dute hauek txikitzen inoiz hauekin jolastu». Baina ez da ahaztu behar, jostailua baino, inportanteagoa dela jolastea. «Jolastea haurarentzat behar bat da, jate bezala. Honen bidez, erlaxatu, plazerra sentitu, heldutu, hezi eta beste hainbat balore ikasten dituzte».

Bestalde, Txatxilipurdi elkarteak sormena eta irudimena bultzatzen du, jostailuak erreziklatu, hain zuzen ere.

Esan bezala, guraso eta hezitzaileentzat da aproposa gaurko eta biharko hitzaldia, eta zalantzak nahiz adibideak emango ditu Eneko Barberena adituak, batez ere Gabonei begira jarrita.



Sormena lantzea ona da. Trapuzko pampinak ere egokiak izan daitezke. HITZA

Laburrak

Durango azokara joateko autobusa

BALIARRAIN Durango azokara joateko autobusa antolatuta nahi du Baliarraingo Udalak. Abenduaren 6an joateko asmoa dute eta 14:30ean aterako litzateke autobusa plazatik. 19:30ean egingo lukete buelta. Izena emateko azken eguna gaur da, eta Baliarraingo Udaletxera deitu behar da horretarako, 943 88 90 03 telefono zenbakira.

Herriko garai bateko dokumentuak, gaur

ALEGIA Gaur Alegiko Kultur Etxean Alegiko garai bateko dokumentuak izango dira ikusgai. Jose Inazio Iglesiasen bideratuko du gurtia, 19:00etatik 20:30era. Bihar, berri, 19:00etan Txatxilipurdi elkartearen eskutik jostailuen aukeraketari buruzko hitzaldi bat izango da, Kultur Etxean ere.

Jubilatuentzako hitzaldia, gaur arratsaldean

AMEZKETA Gaur arratsaldean, 18:00etan, Ergoneko 3. adinekoen lokalean jubilatuentzako hitzaldi bat izango da: kasu honetan, *gorputz higienaren eta gorputza zaintzeko garrantziak* ariko dira. Amezetako Udalak eta Kutxak antolatuta dute hitzaldi hau.

Ardo-dastaketa ikastaroa antolatuta dute etzi

IKAZTEGIETA Ikaztegieta Udazken Kulturalean daude murgilduta, eta etzi Herrigintza elkartearen ardo dastaketa ikastaroa antolatuta dute Udalak eta Herrigintza elkarteak, Benta Aldea ardotegiaren laguntzarekin. 19:00etan bilduko dira gaur arte (gaur barne) izena eman dutenak 20 euroren truke. Joseba Aranburu ingeniari master eta ardotan jakitunaren eskutik izango da. Izena eman nahi duenak 665 716 217 telefono zenbakira deitu behar du. Ikastaroan azalpen teknikoak, ardoa dastatzearen teknikak eta ondoren dastatzeko aukera ere izango dute ikasi nahi dutenek. Bertan ezingo da erre.

Aurrera-Saiatz Bidanien eta Ibarren ariko da

PILOTA Etzi Aurrera-Saiatz pilota eskolako pilotariak Bidanien frontoian ariko dira 19:00etatik aurrera. Lehenik jubenilak binaka ariko dira Ilunperen kontra, eta ondoren Oiarpe eskolaren kontra, kadeteen binakako mailan. Larunbatean, berri, 18:00etan Ibarren binaka seniorrak lantzen aurka ariko dira, eta ondoren, jubenilak Gaztelukoako arerio izanik. Bestalde, Ugaitz Renobalesen Donosti Gain Txapelketan finala jokatuko du igandean 11:00etan, Egian. Linzoainekin batera jokatuko du, Amantegi-Lopezaren aurka.

Bihar iluntzean hainbat herritarren obra lizentziak izango dituzte hizpide

AMEZKETA Osoko bilkura izango da eta besteen artean, eta bukatzeko Esait-eko mozioa aurkeztuko dute

ERREDAKZIOA

Bihar 20:30ean Udal Plenoan udalkidegoak bilduko dira. Orokorrean, herritarrek eskatutako obra lizentzien onarpenak izango dira. Erabilpen publikoari lotuta, Ugarterko kanposantuan egin behar den obraren onartzea dago.

Kutzako bulegoaren lehen erabilpeneko baimena eskatu dute, besteen artean. Herri-bideen inbentarioaren eskutik jostailuen aukeraketari buruzko hitzaldi bat izango da, Kultur Etxean ere.

Komunikabideei dagokionez, teletestaren antena berritzeko egin beharreko inbertsioa onartuko dute.

ESAITen mozioa aurkeztuko dute jarraian.

Vanpac paper-fabrikako sutea nahita piztu zutela diote aztertzaileek

ERREDAKZIOA

Leitzako Vanpac paper-fabrikako sutea «nahita piztu zutela dirudi», esan dute Foru Zaingoak eta Ertzaintzak. Igandetik astelehenerako gauean sua hasi zen Vanpac paper-fabrikako sarreran.

Foru Zaingoa ari da azterketa lanetan han bertan, eta ikerketa lanetan ari diren esanetan, «nahita piztu zuten» Vanpac-eko sua. Herenegun goizaldean, 03:45ean piztu zen sua baina suhiltzaileek astelehenean goizean jada kontrolpean zuten.

Duela urte bat izan zen sutea

Duela urte bat sute larria izan zen lantegian, azaroaren 2an, hain zuzen ere; orduan ez zen kalteturik izan, baina materiala erre egin zen.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Ardi-zakur alemaniarbelgiarra galdu da Anoetan. Inork ikusi badu 943 65 11 78 telefono zenbakira dei dezala.



Erremonteko Faustino Torneoa, binakako txapelketa, aurkeztu zuten atzo Galarretan. MIKEL RODRIGUEZ

Altuna anaiek eta Patxi Zeberiok Faustino Torneoko txapela izango dute helburu

Erremontea » Faustino Torneoa aurkeztu dute eta bertan eskualdeko hiru erremontista ariko dira txapelaren bila

ASIER IMAZ

Galarreta S.L. eta Euskal Jai S.A. enpresek Erremonteko Binakako Txapelketa Ofiziala aurkeztu zuten atzo Hernanin (Gipuzkoa) eta Iruñean (Nafarroa). 37. txapelketa izango da aste honetan bertan abian jarriko dena eta Grupo Faustino izango denez babesle nagusia, Torneo Faustino izena edukiko du binakako erremonte txapelketak.

Eskualdeko hiru pilotari

Eskualdeko hiru erremontista egongo dira Torneo Faustino: El-duaingo Patxi Zeberio eta Amezetketa Altuna anaiek, Imanol eta Garikoitz.

Zeberio II.aren bikotea Azkoitiko (Gipuzkoa) Jokin Etxabe izango da. Altuna I.aren bikotea Etxeberria III.ak jokatu du. Doneztebeko (Nafarroa) pilotariak, hain zuzen

ere. Altuna II.aren azkenik, Miguel Mari Urrutia gazteak osatuko du bikotea, Saldiasako (Nafarroa) semeak.

Lehen partida, bihar

Kantxan Faustino Torneoa bihar hasiko da. Lehen partidari Zeberio II-Etxabe bikoteak, Urrutia-Lizaso izango dituzte aurrean Euskal Jai Berri-Reynon, Huarteko pilotalekuan (Nafarroa). Altuna I.ak abenduaren 6an jokatu du txapelketako lehen partida eta Altuna II.ak abenduaren 13an. Bi amezketarrak Hernaniko Galarretan estreinatuko dira.

Finala berriz, urtarrilaren 12an erabakiko dute Galarretan.

Txapelketaren arauak

Faustino Torneoa 6 bikotek hartuko dute parte. Hauek bi multzotan, A eta B, banatuak egongo dira lehen fasean. Bi multzotako hiru bikoteak, euren artean ligaxka jokatu dute, denak denon aurka eta lehen biak finalerdietarako sailkatuko dira.

Finalerdietan, A multzoko onek, B multzoko bigarrenen aurka

jokatuko dute, joan-etorriko partidak izango dira eta berdinketa egon ezker bi partiden ondoren, hirugarren batek erabakiko du finalera zeintzuk igaroko diren. B multzoko lehenak eta A multzoko bigarrenak ere arau bide bera egin beharko dute finalera iristeko. Finala partida bakarrera jokatu da 2008ko urtarrilaren 12an, Hernaniko Galarretan.

Eskualdekoen palmaresa

Binakako txapelketan pilotaririk oparoena, palmaresari dagokionez, Patxi Zeberio da, elduaindarrak bost txapela lortuak baititu jadanik. Azkena 2005. urtean lortu zuen, Auzumendi lagun zuela.

Garikoitz Altunak Faustino Torneoko bi txapel ditu etxean, 1997 eta 2000. urtean lortutakoak hain zuzen ere. Honetaz gain, hiru aldiz geratu da azpitxapeladun moduan.

Imanol Altunak berriz, 2002. urtean Eizagirrerekin lortutako txapela bakarrik dauka palmaresan. Kasu honetan gainera, Faustino Torneoko finala anaiairen aurka irabazi zuen.

Markel Olano Diputatu Nagusia Elduainen

Politika » Gestora osatzearen inguruan hitz egingo zutela aipatu dute Elduaingo Alkateak eta Diputatu Nagusiak

A. IMAZ

Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Elduain bisitatu zuen atzo. 12:00etarako funtzioetan dagoen Udala taldea prest zegoen udal txetxean harrera egiteko. «Kontseilubaten ondorioz» 25 minutu beranduago iritsi zen Markel Olano. Lanpeturik egon arren, «ordubete edo ordu eta erdiko bilera» aurrekusten zuen Olano. Ondoren Gipuzkoako Nekazari Diputatua heldu zen, Rafa Uribarren, hain zuzen ere.

Gestoraren inguruan

Bittor Muñagorri (EAJ) gaur egun herriko alkatea da, nahiz eta hauteskundeetara ez aurkeztu. ANV-EAren zerrendak legez kanpo utzi zituzten azken hauteskundeetan eta Ppk botu bakarra lortu zenez, funtzioetan aurreko Udalak jarraitzen du, Muñagorri alkate moduan aurkitzen delarik.

Hala eta guztiz ere, HITZAN hauteskunde ondoren egingako elkarriketan, Muñagorri gestora ba-

ten beharra aipatzen zuen; «Udala eramango duen gestora bat osatzea da irtenbidea, udal txetxari funtzionamendu normal bat emateko».

«Ez dakit irtenbiderik dugun»

Eguerdian iritsi zen Bittor Muñagorri Elduaingo udal txetxera, «kontseilu bat luzatu egin zaie eta beranduago etorriko dela esan dit». Herriaren egoera nola dagoen galdetuta, Muñagorri «lehengo egoeran» aurkitzen dela adierazi zuen. Diputatu Nagusiarekin gestorearen inguruan hitz egin behar ote zuen galdetuta, horretaz hitz egingo zela baieztatu zuen.

20 minutura Markel Olano iritsi zen Elduainera. «Rafa Uribarren Nekazari Diputatuak ere etorri behar du baina beranduago izango da». Bisitarren inguruan berriz, Olano «ordubete edo ordu eta erdi» egongo zirela aipatu zuen. Prentsa oharraren arabera; Elduainen egun dituzten egitasmoen berri eman zioten Diputatu Nagusiari, jarraian, herria bisitatuko zutelarik, Elduaingo errealitate bertatik ezagutzeko asmoarekin.

Gestoraren inguruan bileraren aurretik, Olano «ez dakit horren inguruan irtenbiderik dugun, baina hizketaldian gaia irtingo» dela azaldu zuen.

Laburrak

Etxetik kanpo berdinketa lortu zuen Ibarra

IBARRA » Ibarra Areto Futbol taldeak berdinketa lortu zuen Santurtzen aurka, iragan larunbatean Santurtzin (Bizkaia) jokatuako partidari. Azken emaitza 4-4koa izan bazen ere, ibarretarrek hiru puntuak baxera ekartzeko aukera bikaina galdu zuten. Ibarra 3-0 hasi zen galtzen baina partidari buelta ematea lortu zuten. 3-4ko emaitzarekin zirela, aukera bikainak galdu zituzten eta kasu hauetan gertatzen den bezala, partida amaieran puntu bakarrekin itzuli ziren etxera. Goleatzaileei dago kienez, Davilak eta Mintxok gol bana sartu zituzten, Ruben Etxarrek aldiz bi.

Kontzertua eta pilota finala abenduaren 15ean

IBARRA » Abenduaren 15ean, larunbatean, Ibarra Gaztetxean kontzertua egongo da. 23:00ak inguruan hasiko da eta bertan, Sakana Hesian talde naparra eta Talco italiarrak arituko dira. *Dantzatzen duen herria ez da inoiz hilko!* lelopean egingo den jaialdian, «ferra ziurtatua egongo da», izan ere, herriaren inguruan handia izango da abenduaren 15a. Egunean zehar, herriko pilota txapelketaren finala jokatu da Belabieta kiroldegian eta honen ondoren, txapelketan parte hartu duten bikote eta herritarrek afaria egingo dute. Ondoren Gaztetxera hurbilduko dira jai egunari amaiera emateko asmoz.



Higiezin Agentzia
Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Tolosa: Erremontari kalean, 62 m2tako planta duen etxebizitza, 5. solairuan. 3 logela, garajea aukeran.
Tolosa: Berritutako etxebizitza, 2 logela, 50 m2, 50m2-ko garajea.
Tolosa: Berazubi, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, bista ederrak.
Tolosa: Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatua, lursailarekin, 297.000 euro.

Tolosaldea: baserria, 10.000 m2-ko lursailarekin, konpontzeko.
Tolosa: Belate, garaje itxiak salgai, 25 m2-ta-koak.
Albiztur: konpontutako baserri zoragarria, 13.000 m2-ko lursailarekin.
Altzo: 75 m2-ko planta duen bi pisutako borda, 10.000 m2-ko lursaila.
Alegia: eraiki berriak, 13 etxebizitza, logela

bakarrekoak eta bi logeletakoak, trastelekuarekin, 179.800 eurotatik gora.
Altzo: etxea, konpontzeko, 3 etxebizitza egiteko lizentziarekin, 10.000 m2-ko lursaila.
Iruña: etxea 3. solairuan, 3 logela, kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.
Anoeta: Harriko baserrian etxebizitza salgai. Konpontzeko, 90 m2.

Hizkuntza gutxituen garapenari buruzko mahai-ingurua antolatu dute

Tolosa » Hegoamerikatik etorritako hizlari garrantzitsuek hartuko dute parte bihar egingo den mahai inguruan



Garabide elkarte koordinatzailea da Urko Kolomo tolosarra. HITZA

HARRIET BELLOSO

Bihar 19:30ean eta Tolosako Haur Liburutegian, *Hizkuntza gutxituen garapena eta euskal esperientzia* izeneko mahai-ingurua egingo dute. Garabide Elkartek eta Tolosako Udaleko Euskara Batzordeak antolatu dute.

Leku askotako hizlariak

Hegoamerikatik etorritako lau hizlari egongo dira mahai-inguruan. Jacqueline Caniguan Caniguan Txiletarrak Maputxe hizkuntza suspertzeko ahalegina jardun du urte askoan. Egun, *Azkintu* egunkari maputxeko editorea da. Identidad Lafkenche

elkarte aholkulari ere bada maputxearen inguruko gai linguistikoetan. Salustiano Ayma Morales boliviarrak, berriz, Aimara hizkuntzaren normalizaziorako bidean lanean dihardu. Aimara hiztegi bat osatu du, baita normalizaziorako dokumentua ere. Hez-

kuntza sisteman aimarak lekua izan dezan ere lan asko egin du. Luis Segundo Cesar Pilataxi Lechon Ekuadortik dator eta Kaw-say" Kultura Indigenen Fundazio-ko Koordinatzaile nagusia da. Azkenik, Guatemalatik Sonia Salome Raymundo Gonzalez izango da.

Rigoberta Menchu Tum fundazio-ko hezkuntza arloko aholkulari pedagogikoa da.

Hizlariak beren herrietan hainbat erakunde eta mugimendu indigenetan ibilbide handiko pertsonak dira. Beren esperientzia zabal-baliatuz, euren herrietako egoera kultural eta linguistikoa azalduko dute. Begirada indigena batetik, beren hizkuntzen garapen prozesuez hitz egingo dute. Euskal esperientziak ere izango du presentziarik biharko mahai-inguruan.

Azaroaren zehar ekitaldiak

Garabide Elkartean eskutik hil honen amaierara arte Hizkuntza eta Herrien Arteko I. Truke Programa ari dira gauzatzen. Trukaldian Hegoaldeko hizkuntza gutxituen komunitateetako bederatzita bisitarik hartu dute parte. Euskal Herrian dira hiru astez, euskalgintza ezagutzeko asmoz.

Txozna batzordekoek bilera egingo dute bihar Kultur Etxean

Tolosa » «Irabazi-asmoa ez duten herritar eta taldeei» deia luzatu dietei inauterietako gunean parte hartzeko

ERREDAKZIOA

2008ko inauterien gertutasuna dela-eta Txozna batzordeak bilera deitu du bihar, osteguna, 19.00etan Tolosako Kultur Etxean. Bileraren helburua inauterietarako gunearen prestaketei ekitea izango da.

Txozna batzordekoek azaldu dutenez, «aurtengoan, jai herriko eta parte-hartzaileen alde lan egin nahi duen talde eta tolosar guztiengana zuzentzen gara elkarrekin gune hori prestatzeko». Batzorde «irekia da», eta bertan, «irabazi-asmorik ez duten herriko talde eta norbanako guzti» ateak zabaltzen dizkiete.

B Blogteka info

40 emozio urte

Laskorain Ikastolaren 40. urteurrena dela eta, ikastolaren ibilbidea eszenaratu duen ikuskizun aparta prestatu dugu: sorrera garaian euskararen egoera Tolosan, administrazioarekin harreman zailak, urteetako bilakaeran izan diren zenbait gertaera eta une googarriak, gaur egun adierazgarriak direnak eta etorkizunari begira izango diren erronkak. Hau guztia, adierazpen artistikoak eta era guztietako emozioak elkarren artean nahasiz: antzezpena, ikusentzunezko baliabideak, musika, dantza... modu alaietan nahiz garrantzian, hunkigarrian nahiz barre-garrian. Horretarako parteide ugari pasaraziko dira oholztatik edota pantailatik, hala nola, gaur egungo nahiz iraganeko ikasle, guruso eta langileak. Laskorain Ikastola Tolosako hezkuntza eta euskalgintza 40 urte hauetan

egin duen historia ahalbidetu duen herriari erakus diezaiozun, emanaldia ikastolako kideentzat ezezik Tolosa herriari eskainia eta herritarrentzat irekia izango da ere; abenduaren lehen larunbatarekin, Usabalgo kiroldegian. Txarretak salgai daude Ikastolako idazkaritzetan eta Kilometroak 2008 (Kale Nagusia, 15) dendan.

Laskorain ikastolako bloga
<http://www.tolosaldeko HITZA.info/bl-ogak/laskorain>

Ibarran Kultur trukaketa hamabostaldia

Ibarra Ekuadorreko eta Saharako bi herriekin dago anaitua, eta honen ondorioz iada ohitura bihurtu den kultur trukaketaren hamabostaldia dute martxan. Sartu den aste hau iada bigarren astea da eta ekintza ugari izan diren arren oraindik ere beste hainbat gertatzen dira.

Gaurkoan [atzo] *Lalia* izeneko dokumentala ikusteko aukera izan dute bertara gerturatutako guztiak eta asteazkenean [gaur] Tolosaldea Sahararekin elkarte-ko kideen eskutik hitzaldia izango da bertan. Hitzaldi hau saharar egoeraren berri izateko izango da, beti ere bertan izandako bisitarien ikuspuntutik.

Sahararrek pairatzen duten egoera izango da mintzagai eta gerturatzen direnek beraien dudak, zalantzak, jakinminak... hasezko tarteaz itzate ere espero dugu hitzaldia guztion artean egituratutakoa izatea espero bait dugu. Eta denon parte hartzea ere bai.

Horrela bada ahal duzuenok bertara gerturatutako gonbitea egiten dizuegu.

Bestalde asteartetik aurrera Ekuadorreko eta Saharako gauzen erakusketa dago jarrita. Badakigu jende asko dabilela. Eta askori asko gustatu zaiela bertako berri berta-

tik ekarritako gauzeekin izatea. Esposaketa hau ostiralerarte izango da ikusgai eta beraz oraindik bertatik igaro ez zaretenoi gonbitea egiten dizuegu.

Tolosaldeko Sahararekin
<http://www.tolosaldeko HITZA.info/bl-ogak/sahararekin>

AHT, Internet eta deialdiak (I)

Hasi baino lehen, azkenean, dakizuenez, joan den astetik AHT Gelditu Elkarlanak badauka bere web horria. Hau da: www.ahtgelditu.org. Dakizuenez ere AHT Gelditu Elkarlana, AHTen aurkan dauden talde desberdinen kordinakundea dugu. Gero beste talde batzuk daude, eta bereziki AHTen kontrari jorratzen duen bat, AHTen kontrako Asanblada dena. Azken hau badago Elkarlanean baina Elkarlana ez da Asanblada besterik baizik eta

talde askoz gehiago. Agian zaila iruditzen zaizue. Zer esanik ez, ostiralean ni gelditu eta miatu ninduten guardia zibiltzako hau ulergaitza zen. Gainera nik Ekologistak Martxan erakundean lan egiten dudalako eta Asanblada pegatak nituelako! Eta haiek Granadakoak eta hegoaldekoak zirelako eta gainera... Logronotik zetozelako! Aproposak informazioa jasotzeko! Baina tira, esan nizuenez horretaz laster gehiago kontatuko dizuet.

Asanblada azpalditik dabil AHTen kontra eta honek azpalditik bere webgunea dauka: www.sindominio.net/ahtez. Eta honen bila nenbela blog honetan nik hemen idatzitako aurkitu det, beraz blog hau Tolosaldekan kanpoan ere irakurri egiten dute! (...)

Ekologistak Martxan
<http://www.tolosaldeko HITZA.info/bl-ogak/martin>

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Titirijaien baitan, egitaraua: Euskadiko Txontxongilo taldearen *Zergatik bizi da basoan txanogorribak amona?* Kultur Etxean 18:00etan; Txekiako Karromato taldearen *Egurrezko zirkoa* Gorosabelen 18:00etan eta Andaluziako Fernan Cardama-ren *Historias de media suela* Kasinon.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Liburu Azoka San Franzisko pasealekuan.

■ **Tolosa.** II. Txuleta Festa abenduaren Setik 9ra Zerkausian, Astelena, Botarri, Beti Alai eta Bidebide jatetxeetan eta Usabal eta Uzturre sagardotegietan. Izenematea, 943 697413 telefonoan 40 eurotan.

■ **Tolosa.** Laskorain Ikastolaren 40. urtemuga ospatzeko *40 emozio urte* jaialdia berezia izango da abenduaren 1ean, 19:00etan, Usabal kiroldegian. Sarrerak, Ikastolako idazkaritzetan eta KMK 08 dendan (Kale Nagusia 15).

Musika

■ **Ibarra.** Abenduaren 15ean, larunbatean Ibarako Gaztetxean Hesian talde sakanarra eta Talco italiarrak ikusteko aukera egongo da 23:00etatik aurrera. Parranda ziurra izango da, herriko pilota finala eta ondorengo afaria ere abenduaren 15ean baitira.

Irteerak

■ **Leaburu-Txarama.** Abenduaren 13an Zumarragako Santa Luzia azokara joateko irteera antolatuta dute. Izen-ematea, Txaramako kultur osasun gunean eta udal-txean.

Hitzaldia

■ **Ibarra.** Tolosaldea Sahararekin Elkarteko kideen eskutik Saharako Errefuxiatu Kanpamendura bi-daiatz hitzaldia Kultur Etxean 19:30ean, Kultur Truke Hamabostaldiaren barne.

■ **Amezketeta.** Gorputz higienaren eta gorputza zaintzeko garrantzia hitzaldia Ergoneko hirugarren adinoko lokalean 18:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Noiz, zer, norekin eta guzti hori!

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Guraso eta senideek adi-adi begiratu zieten ikasleek egindako marrazkiei. LH6 mailakoek, 4. mailakoek prestatutako jolasean parte hartu zuten. I. GARCIA



Euskararen Astearen baitan, atzo Zizurkilgo Pedro Mari Otañoko Ikasleek emanaldiak egin zituzten euskara ardatz hartuta; astelehian egindako marrazkiak ere ikusgai daude eskolako aurrealdean.

'Euskara kantan, Otaño dantzan'

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan emanaldien eguna izan zen atzo Euskararen Astearen. Txan magoak goizean egin zuen bere emanaldia eta arratsaldean ikasleen txanda izan zen. Goizean goiz, astelehenean egindako marrazkiak itsatsi zituzten eta asterako aukeratutako leloa, *Euskara kantan, Otaño dantzan*, eskolaren aurrealdean handi eta nabarmen jarri zuten.

Kantan, dantzan eta beste hainbat gauza egiten aritu ziren ikasleak izan ziren. Zurteko hasi eta LH6 maila bitartekoek parte hartu zuten. Euskara ardatz hartuta, bertsoak abestu, *Mihiluze* saio ezagunaren antzeko jolasa egin, txisteak eta esamoldeak esan, *Aitorren hizkuntz zaharra* abestu... Bertaratu ziren gurasoek gustura jo zituzten txaloak.



2 eta 3 urteko haurrak olerki eta kontutxoak esaten aritu ziren irakasleen laguntzaz. I. GARCIA

A Agurrak



Urte askoan!

Gure Maialen ponpoxak gaur 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat zure familiarean partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udalteko bulegoa

agurrak